



SANTIAGO BIDEA GIPUZKOAREN ITSAS-HEGALETIK




ondarribia aldizkariaren 72. zenbakian (1996ko Azaroko alean), «Santiago bidea

Hondarribitik» zeritzan artikulua argitaratu nuen.

Nola Santiago kalearen muturrean zen Madalena ermitatik Santa Maria Parrokira joko zuen. Zeren 1496. urteko agiri batek aipatzen zuen erromesak igarotzen zirela. Gainera, oroi Hondarribiko Santa Maria Parrokiaren korupeko gangan Santiago erromesaren irudi bikain bat badela, XV. mendekoa.

Alde Zaharretik Sainduara joko zuten, handik Botika eta Galtzaburu baserrietatik, Arkollako Santiago ermitara (gaur egun Santiagotxo deritzaiona), Montserrat eta Ipiztikutik mandobide zaharra hartuz Esteuz gainera jotzeko eta Jaizkibelgo allerrua zeharkatuz Alarguntza baserrira, handik behera Lezora joateko.

orrialdeetan. Eta, bertan zioenez, Moret nafar historiagileak aipatua, Lope García de Salazar-ek 1455. urtean idatzi zuen *Bienandanzas e Fortunas* zeritzan koronikak zekarrela.



Santiago Erromesa, Santa Maria Parrokian ikus daiteken irudia.

Aurten, 1999ko urte hontan, Santiago bidez hainbeste aipamen egiten denean, Gipuzkoaren itsas-hegaletik zijoan aintzinako bide zaharra ezin nezake utzi aipakuntzarik gabe.

Gipuzkoako Artxibategiaren arduradun hainbeste urtetan izan zen Fausto Arozena zenak aspaldi idatzi zuen «Los Caminos de Santiago. Importancia de la ruta de la costa», *Bo. R. S. V. de los Amigos del País*, XXIV (1968), 247-248.

Santiago bide zaharra lehenago nola zijoan itsas-hegaletik, Nafarroako errege Santxo Nagusiak Leon-dik eta Gaztelaren ifarraldetik moroak hegoalderuntza bota zituenean irekirik utzi zuelako mesetako lautadatik erraz joan ahal izateko bidea.

Erromarren antzinako bide zaharra noski, 1115. urteko *Crónica Silense* hartan lekukotzen zena, eta zalantzarik gabe uste horri eutsi beharrezkoa iruditzen zitzaion.



Aldi berean, Arozena jaunaren gaiari jarraituz, beste zenbait gehigarri gaineratu nizkion «Más sobre la ruta Jacobea por la costa» izenburuz, *Bol. R. S. V. de los Amigos del País XXVI* (1970), 484-487. orrialdeetan. Silos-ko kronikari Naxarako *Crónica Najerense* delakoak zekarrenaz gainera beste zenbait ohar gehituz.

Silos-koak zioen: «*Ab ipsis namque Pirineis iugis adusque castrum Nazara quidquid terra infra continentur, a potestate paganorum eripiens, iter Sancti Jacobi, quod barbarico timore per devia Alave peregrini declinabant, absque retractionis obstaculo currere fecit*». Eta argudio berdintsuak zekartzaten Toledo eta San Juan de la Peña-ko kronikak ere.

Argi gehiago eskainiz, horregatik zioen Gonzalo Menéndez Pidal-ek *Los Caminos en la Historia de España* (Madrid, 1951) liburuko «El Camino de Santiago» deritzan kapituluaren 47-48. Orrialdeetan:

«*La importancia de esta vía de peregrinación creció aún más en el siglo XI. Hasta entonces, los peregrinos, según la crónica Silense y el Toledano, habían de caminar, por temor de los moros, a lo largo del seguro, pero abrupto, camino que les ofrecían los montes cántabros en su vertiente atlántica. Fue Sancho el Mayor (h. 1030) quien, al decir de las crónicas Silense y Najerense y del Toledano, pudo cambiar con sus conquistas el trazado del camino y hacerlo correr, seguro de moros, por las tierras de la meseta: Nájera, Briviesca, Amaya y Carrión, amoldándose de modo general al trazado de una vieja vía romana*».

Erromarren antzinako bide zahar hori, Bordeletik Astorgara zijoan «Vía Antoniana» zeritzana da; «Burdingala-Asturica» bezala ezagutzen zena noski.

Hondarribitik Lezorako bideari itsasondotik jarraipena ematea ez da gauza zaila mendiz-

mendi probintzian zehar ibili garenontzat. Aipatu ditudan tokiotan kaltzarak hor ziren, horietako gehienak gerora bideak zabaltzean edo pistak irekitzean galdu badira ere, oraindik horien aztarnak ez dira guztiz galdu.

Pasaia San Joandik San Pedrora batelez igaroko ziren. Gero, handik Donostiarako bidea Ulia menditik egiteko eta Donostiatik Mendizorrotzera, gainez-gain Kukuarriraino eta handik behera San Martin ermitatik Oriora.

Hemendik ere, berriz mendiz gora Zarautzera jaisteko. Zarautzik, Santa Barbara, Garate lepoa eta handik behera San Prudentzio eskubialdera hurbil utziz Azkizura, bertatik Zumaiako Santiago ermitara jaisteko (ermita horren serora etxean, gaur egun, I. Zuloagaren museo dago, baina gainerakoan ermita bezala jarraitzen du).

Zumaiatik Elorriaga (Elorrixa) auzotik gora Itziarrera eta hemendik zuzen, oraindik kaltzada gordetzen den bidea hartuz, Sasiolara. Eskubialdean hurbil da Astigarribiako San Andres, XI. mendeko aztarnak dituen eliza.

Astigarribia eta Sasiolaren artean hasten da beste kaltzada bat, Arno mendia goraka gailur ingurutik zeharkatuz Arnoate baserrira doana. Itxura batean nekez ibiltzeko mendi gogor eta malkartsua dirudi Arnok, baina ez da horrela, bideak zuzen hartu eta ondo jarraitzen baldin badira.

Arnoatetik laster sartzen da Bizkaiko Markinaldera. Gainera, besteak beste oroi, Ziortza (Zenarrutza) kolejiata oso zaharra izateaz gainera oinaztar leinuaren parrokia zela eta Sasiolako jaunak oinatarrak zirenez bide hori erabiltzen zutela.